

# Euskara, zentimetro kontua

Sarrera hau onintza-irureta-(e)k  
idatzi du / Urtarrila 9, 2012

Atala: [Euskara](#)



Neurriaren garrantzia.

Aldagela publikoetan nago, ama-alabei begira, hobeto esanda, aditzen. Diskrezioz ari naiz, baina nire belarriak haien aldera makurtuta daude. Amak alaba txikiari euskaraz egiten dio eta alabak amari ere bai. Ze ondo, ze polita. Halako batean, eszena bukolikoan, bigarren alaba agertu da. Ama, alaba zaharragoari (zazpi bat urte izango ditu) gaztelaniaz hasi zaio. Triskantza! Belarriak alde batera utzi eta lotsarik gabe begiratu diot hirukoteari. Ez dago zalantzarik, ama bera da hizketan eta seguru biak bere alabak direla, antz handia daukate-eta. Nola liteke? Alaba bati euskaraz eta besteari gaztelaniaz? Esplikazioa behar du... Eta derrepente aittitta etorri zait gogora, eskuan metroa duela, bilobak sukaldeko paretan neurtzen. Harro asko egiten zuen marka lapitzarekin, bilobak hazten ari zirela ikusita. Aldagelako zurrumbilo (niretzat zurrumbiloa, hizketan lezki edozein erri da bi hizkuntzetan) hizkuntzaren erabilera diot esplikazioa.

zurrunbidea, mirukotea lasai ederrean ari da bi hizkuntzetan) inguisukoari aurkitu diot esplikazioa: amarentzat hizkuntzak zentimetro kontua dira, hainbeste zentimetrora arte euskaraz, eta hortik aurrera gaztelaniaz.